



MUSÉE BASQUE ET DE L'HISTOIRE DE BAYONNE
BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

Un **MONUMENT**
de **RESPECT**
et d' **AMOUR**

BEGIRUNE
eta **AMODIOzko**
MONUMENTUa

WILHELM VON HUMBOLDT
ET LE PAYS BASQUE EN 1800
ETA EUSKAL HERRIA 1800EAN

EXPOSITION
10.07.26
> 10.01.27
ERAKUSKETA

MUSÉE BASQUE
ET DE L'HISTOIRE DE BAYONNE
BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

Un monument de respect et d'amour

WILHELM VON HUMBOLDT ET LE PAYS BASQUE EN 1800

Begirune eta amodiozko monumentua

WILHELM VON HUMBOLDT ETA EUSKAL HERRIA 1800EAN

Exposition **Erakusketa**

Du 10 juillet 2026 au 10 janvier 2027

2026ko uztailaren 10etik 2027ko urtarrilaren 10era

Exposition conçue et produite par le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne, en partenariat avec l'École supérieure d'art Pays Basque et avec le soutien de la Fondation Euskampus.

Baionako Euskal Museoak sortu eta ekoitzi du, Euskal Herriko Arte Eskolarekin elkarlanean eta Euskampus Fundazioaren babesarekin.

Salles Errobi **Errobi gela**

Musée Basque et de l'histoire de Bayonne 37, quai des Corsaires, Bayonne

Baionako Euskal Museoan Kortsarioen Kaia 37, Baiona

Commissariat | **Komisarioa**

Jacques Battesti

Prêteurs **Mailegu-emaileak**

Archives Départementales des Pyrénées Atlantiques – Pôle d'Archives de Bayonne et du Pays Basque

Château Fort - Musée Pyrénéen de Lourdes

Médiathèque de l'architecture et de la photographie

Mairie de Toulouse – Bibliothèque municipale

Musée national des châteaux de Malmaison et de Bois-Préau

Didier Lapène

Soinuenea Fundazioa

Remerciements Eskerrak

Le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne et l'ESAPB adressent leurs remerciements à tous ceux qui ont contribué à la réussite de cette exposition.

Baionako Euskal Museoak eta ESAPB-k eskerrak eman nahi dizkiete modu batera edo bestera erakusketa honen arrakastan lagundu duten guztiei.

Présentation Aurkezpena

Wilhelm von Humboldt (1767-1835), linguiste, philosophe et haut fonctionnaire prussien, visite le Pays Basque en 1801 pour deux mois d'enquête et de rencontres, des deux côtés de la frontière, après avoir préalablement parcouru toutes les connaissances accumulées sur l'histoire et la langue de ce territoire. Cette immersion a été consignée dans un récit, ***Die Vasken (Les Basques)***, publié bien après sa mort, au XXe siècle, et traduit en français pour la première fois en 2025. L'exposition, conçue en partenariat avec l'École supérieure d'art Pays Basque et avec le soutien de la Fondation Euskampus, invite le visiteur à une plongée dans le Pays Basque de 1800 vu par Wilhelm von Humboldt, à la rencontre des paysages, des hommes et des idées. Un parcours historique qui contribue à éclairer le présent.

Wilhelm von Humboldt (1767-1835), hizkuntzalari, filosofo eta prusiar goi funtzionarioa zen. 1801ean, lurralde horren historiari eta hizkuntzari buruzko ezagutzak metatu ondoren, ikerketa eta topaketaz jositako bi hilabeteko bidaia egin zuen Euskal Herri osoan zehar. Bidaia hau narrazio batean bildua izan zen, ***Die Vasken (Euskaldunak)***, XX. mendean – hil eta gero – argitaratua, eta lehen aldiz frantsesera itzulia 2025ean.

Euskal Herriko Arte Eskolarekin eta Euskampus Fundazioaren laguntzarekin sortutako Erakusketak bisitaria gonbidatzen du Wilhelm von Humboldtek ikusi duen 1800eko Euskal Herrian murgiltzera, bere paisaiak, gizakiak eta ideiak ezagutzera: oraina argitzen laguntzen duen ibilbide historiko batean barna darama.



A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa



Wilhelm von Humbolt et le Pays Basque : un ethnologue épris de son objet d'étude
Wilhelm von Humbolt eta Euskal Herria: etnologoa, bere ikergaiaren zale

« Il a été l'observateur étranger le plus averti qui se soit jamais penché sur cette réalité qu'on appelle le Pays Basque, et ceci dans l'un des grands tournants de l'histoire ».

Koldo Mitxelena, *Guillaume de Humboldt et la Langue Basque*, in *Lingua e stile*, VIII, 1, 1973 (republié en 1992).

L'étude du passé bénéficie parfois de sources exceptionnelles, de documents singuliers qui ouvrent une multitude de perspectives nouvelles sur différents aspects de la connaissance restés jusqu'alors dans l'ombre. *Les Basques*, de Wilhelm von Humboldt, est de ceux-là. Rédigé quelques années après son voyage dans les provinces basques au printemps 1801, il projette une lumière incomparable sur ce territoire et ses habitants, dans une époque charnière entre les derniers feux de l'Ancien Régime et l'avènement progressif de la modernité.

"Euskal Herria deitzen den errealitate hori noizbait jorratu duen atzerriko behatzaile adituena izan zen, eta historiako funtsezko bihurtune batean, gainera."

Koldo Mitxelena, "Guillaume de Humboldt et la Langue Basque" (Wilhelm von Humbolt eta euskara), in *Lingua e stile*, VIII, 1, 1973 (1992an berrargitaratua).

Iragana ikertzean, batzuetan, iturri paregabeak agertzen dira, agiri bereziak, eta ordura arte itzalean gelditu ziren ezagutzaren alderdi batzuei buruz perspektiba berri anitz zabaltzen dituzte. Wilhelm von Humboldten *Les Basques* (Euskaldunak) horietakoa da. 1801eko udaberrian Euskal Herrian egon eta zenbait urtera idatzi zuen, eta lurraldeak eta biztanleak argi berdingabea eman zituen, garai zinez berezian, Antzinako Erregimenaren azken hatsak eta emeki etortzen ari zen *modernotasuna gurutzatzen ari zirela*



Mairie de Toulouse - Bibliothèque municipale, Robert Batty, *Valley of the Bidassoa 3 Miles above Irun*, 1823, A-BATTY (2-12)

Un récit de voyage pas comme les autres : l'œuvre d'un précurseur***Bidaia kontakizun berezia: aitzindari baten obra***

S'il s'apparente à un récit de voyage, un genre littéraire très en vogue à la fin du XVIII^e siècle, le texte d'Humboldt s'en distingue en de nombreux points qui le singularisent et lui confèrent, pour l'histoire du Pays Basque, une valeur sans égale. *Les Basques* est une enquête scientifique dont l'objectif, exprimé par l'auteur dans son avant-propos, est de comprendre ce qui fait la spécificité de ce peuple « qui a gardé sa langue originelle et, en grande partie, sa constitution et ses mœurs anciennes ». L'intérêt pour la formation et les différents aspects des spécificités locales, qu'on appelle aujourd'hui « l'identité culturelle » et qu'Humboldt nomme « le caractère national », est la quête profonde qui alimente toute son activité de chercheur, son « anthropologie philosophique ». C'est cette interrogation fondamentale qui le conduit progressivement vers l'étude du langage, identifié comme l'élément le plus déterminant dans la distinction des groupes humains, l'expression d'un mode de pensée et d'un rapport au monde spécifiques.



Avant son séjour, Humboldt a méthodiquement exploré le sujet, entrant en contact avec les savants basques de l'époque et rassemblant « *un nombre considérable d'outils de travail imprimés et manuscrits, [...] peut-être plus qu'aucun étranger n'en a jamais possédé* ». Dans sa bibliothèque, les travaux des historiens et linguistes basques (Oihenart, Larramendi, Astarloa, etc.) voisinent avec les livres de voyage en Espagne des européens (Bowles, Fischer, Dillon, etc.). Pensé comme le prolongement de cette recherche documentaire, son voyage apparaît comme une authentique enquête de terrain : « *Il me sera surtout important de décrire les Basques dans leurs mœurs et leur style de vie et je m'efforcerai donc aussi de représenter principalement leur langue comme empreinte vivante de leur façon de penser et de sentir* ».

Sa rencontre avec les Basques a suscité en lui un enthousiasme puissant et durable, dont son texte porte l'écho. Charmé par cette terre, émerveillé par ses habitants, par leur histoire, leur tempérament et leur attachement à leur identité culturelle, à leur « nation », Humboldt ne fait pas de mystère de son engouement et de son affection : « *Je ne saurais me flatter de parvenir à esquisser une description de la nation Basque qui ressemble à l'image qui s'en est empreinte pour toujours dans mon âme. Mais si c'était le cas ne serait-ce que partiellement, [...] je serais alors*

parvenu à lui dresser un monument qui, bien que peu digne d'elle, correspondrait néanmoins au respect et à l'amour qu'elle m'a inspiré à un degré si élevé ! ».

Son texte constitue le premier témoignage global sur ce peuple, de part et d'autre de la frontière, la plus ancienne archive qui nous permette aujourd'hui de voir ces femmes et ces hommes dans leur quotidien et leur environnement, à l'aube du monde moderne.

Bidaia kontakizunen literatura-generoa biziki modan zen XVIII. mende bukaeran; Humboldtten testuak, horien eite izanik ere, baditu horiez urruntzen dituen berezitasun anitz, Euskal Herriko historiaren ikuspegitik balio paregabea ematen diotenak. *Les Basques* (Euskaldunak) inkesta zientifikoa da; egileak aitzinsolasean adierazten duen bezala, euskal herriaren berezitasuna ulertzea du xede, *"jatorrizko hizkuntza atxiki baitu, baita, parte handi batean, bere izaera eta antzinako usaiak ere"*. Haren ikerketa-jarduera osoa, haren *"antropologia filosofikoa" elikatzen duen bilaketa sakona formakuntzaren eta tokiko berezitasunen hainbat alderdiri buruzko interesean datza gaur egun "kultura-identitatea" deitzen dena eta Humboldttek "izaera nazionala" izendatzen duena*. Funtsezko gai horrek du pixkanaka hizkuntza ikertzeraz bideratzen, hizkuntza jende taldeak bereizten dituen eta pentsamolde jakin bat eta munduarekiko harreman jakin bat adierazten dituen osagai erabakigarriena dela jotzen baitu.

Euskal Herrian egon aitzin, Humboldttek gaia metodoz aztertu zuen, garaiko euskal adituekin harremanetan jarritik eta *"lan tresna inprimatu eta eskuz idatzi franko [bilduz], hain segur edozein atzeritarrek sekula ukan dituenak baino gehiago"*. Liburutegian, euskal historialari eta hizkuntzalarien lanen ondoan (Oihenart, Larramendi, Astarloa, etc.), europarrek Espainiara egin bidaian kontakizunak zituen (Bowles, Fischer, Dillon, etab). Bidaia dokumentu bilaketa horren segida gisa ikusten zuen, eta egiazko lekuko inkesta itxura hartu zuen: *"Halaber, bereziki garrantzitsua izanen zait euskaldunak haien ohitura eta bizimoduaren bitartez deskribatzea; hala, haien hizkuntza nagusiki haien pentsamoldearen eta sentimendu-moldearen adierazpen bizi gisa aurkezten saiatuko naiz"*. Beraz, haren liburuak garaiko jakintzaren sintesia eta bertan hark ikusiak uztartzen ditu. Nahiz ondorengoak Humboldt bezalako ere hizkuntzalari gisa oroitu diren, ikerketa-metodo zorrotz eta berritzaile horri esker, mende bat geroago Malinovskik formalizatu tokiko ikerketa etnografikoen aspaldiko aitzindari gisa ere ikus daiteke. Zorroztasun bereziki akuilatua da: hizkuntza ikastea, zuzenean behatzea, biztanleen egunerokoa partekatzea. Humboldt azken puntu hori behin baino gehiagotan aipatzen du testuan: *"Egiazko eta esker oneko bozkarioz oroitu naiz beti baserrialdeko etxe horietan egin didaten laguntasunezko harreraz, batzuetan nehork hara igorriarik ere, batzuetan familiarekin zenbait egun iragateraino; herriko bitxikeriak ezagutaraztean izan duten onginala artatsua ere oroitu naiz"*.

Euskaldunak ezagutzeak suhertasun indartsu eta iraunkorra eragin zion, eta haren testua entimendu horren oihartzuna da. Lurrak xarmatu zuen, eta biztanleek, haien historiak, nortasunak eta kultur nortasunari eta "nazioari" zioten atxikimenduak liluratu zuten. Humboldt horenganako karra eta atxikimendua argiki adierazi zituen: *"Ez nuke erranen gai naizenik Euskal Herriaren deskribapen bat egiteko, ene ariman betiko iltzaturik gelditu den irudiaren parekoa litzatekeenik. Baina partez behintzat hala balitz, batez ere hango hizkuntza ikertzeko bizi izan ditudan neke guzien ordaina eta aise gehiago eskuratu dudala joko nuke; izan ere, horrek erran nahiko luke Euskal Herriari monumentu bat eskaini diodala, haren mailakoa ez izanik ere, behintzat nigan sortu duen estimu eta maitasun zinez sakonaren adierazgarri litzatekeena"* Humboldtten testua mugaren bi aldeetako euskal herriari buruzko lehen lekukotasun osoa da, mundu modernoaren atarian emakume eta gizon horiek haien egunerokoa eta ingurumenarekin ikustea ahalbidetzen digun artxiborik zaharrena.

Destin et postérité du texte**Testuaren ibilbidea eta eragina**

Appelé à marquer l'histoire comme un jalon majeur de la révélation au monde de ce peuple, ce livre n'a pas eu le destin qu'il méritait, faute d'avoir été publié par son auteur. Resté à l'état de manuscrit, puis perdu, il a été retrouvé et imprimé pour la première fois en 1920, dans l'un des nombreux volumes de l'édition complète des œuvres d'Humboldt par Albert Leitzman. L'original est aujourd'hui considéré comme perdu.

La réception enthousiaste des travaux de Humboldt par les bascologues d'Hegoalde, à partir de la seconde moitié du XIX^e siècle, explique la traduction en castillan presque immédiate du récit de voyage de 1801, parue entre 1923 et 1924 dans la *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV). Les nombreuses traductions de textes de Humboldt qui ont suivi, en castillan, puis en basque à partir des années 2000, font de ce philosophe, linguiste et anthropologue un personnage familier et relativement bien connu dans les provinces basques du sud. Au nord, sa postérité a fortement pâti de la faiblesse des traductions en français de son œuvre, qu'il s'agisse d'études sur l'*euskara* ou de travaux sur le langage en général. La publication d'une version française de *Die Vasken*, un siècle après sa parution en castillan, offre ainsi une occasion rare d'attirer l'attention sur ce personnage historique de premier plan, linguiste renommé qui fut aussi le grand précurseur de l'ethnographie en Pays Basque.

Humboldten liburuak historia markatu beharko zukeen, euskal herria munduari ezagutarazi zion mugarria izan baitzen; baina ez zuen merezi zuen ibilbidea ukan, egileak ez baitzuen argitaratu. Eskuizkribu gisa gelditu zen, eta galdu; aise berantago atzeman zuten, eta 1920an lehen aldiz inprimatu, Albert Leitzmannen Humboldten obren argitalpen osoaren liburuki ugarietako batean. XIX. mendearen bigarren erditik goiti, hegoaldeko euskalariak Humboldten lanak gogo handiz hartu zituzten, eta 1801eko bidaiaren kontakizuna kasik segidan itzuli zuten gaztelaniara: 1923 eta 1924 artean argitaratu zen, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) aldizkarian. Ondotik, Humboldten testu anitz itzuli ziren, gaztelaniara eta, 2000ko hamarkadatik goiti, euskarara. Hala, filosofo, hizkuntzalari eta antropologoa figura aski ezagun bilakatu zen Hego uskal Herrian. Iparraldean, haren obra guti itzuli zenez frantsesera —bai euskarari buruzko ikerketak, bai lengoaiari buruzko lanak— aise eragin gutiago ukan zuten. *Die Vasken* (Euskaldunak) liburuaren frantsesezko itzulpena gaztelaniazkoa baino mende bat berantago argitaratu da. Horrek parada bikaina ematen du lehen mailako figura historikoa agerian emateko, hizkuntzalari ospetsua Euskal Herriko etnografiaren aspaldiko aitzindaria ere izan baitzen.



Exposer une vision **Ikuspegi bat agerian**

L'exposition qui accompagne cette traduction porte une double ambition. D'une part faire connaître l'apport historique déterminant d'Humboldt, en s'efforçant de redessiner, à travers son regard, le visage du Pays Basque en 1800. D'autre part s'intéresser à la résonnance contemporaine de ce texte, par le biais des interprétations et lectures que peuvent en faire des jeunes aujourd'hui, qui le confrontent à leurs préoccupations et à leur expérience du territoire. À cette fin, le choix a été fait de ne prendre en compte qu'une partie du texte, celle portant sur ses observations de terrain, et de les rassembler par commodité en quatre grandes sections : paysages et atmosphères, sites et lieux, le caractère national, les Basques au quotidien.



@ Lucas Tuillon. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa

L'essentiel de cette matière provient des collections du Musée Basque, dont cette exposition souligne indirectement la grande richesse et la diversité. Quelques trésors ont été sortis des réserves pour l'occasion : presque toutes les éditions originales des livres compulsés par Humboldt, des manuscrits du XVIII^e siècle ou un large ensemble de dessins d'Alexandre Millin Duperreux du début du XIX^e siècle. Dans ce lot figure un petit croquis à l'encre, d'apparence anodine, qui s'avère particulièrement précieux pour notre propos : une représentation de Wilhelm von Humboldt et de son épouse Caroline, de dos, lors d'une excursion à Cauterêts en 1799, juste avant leur première découverte du Pays Basque. D'autres pièces remarquables ont été sollicitées en prêt pour compléter ce panorama, dont les iconiques registres des délibérations du Biltzar du Labourd au XVIII^e siècle, des dessins de Viollet-le-Duc et des tableaux d'Alexandre Millin Duperreux.

Itzulpenarekin doan erakusketak bi xede ditu. Batetik, Humboldtten ekarpen historiko erabakigarria ezagutaraztea, haren begiradaren bitartez 1800eko Euskal Herriaren bisaia marraztuz. Bestetik, testuaren oihartzun garaikideari behatzea, egungo gazteen interpretazioei

lekua emanez, haien egungo arrangurekin eta lurraldearen esperientziarekin alderatu baitute. Horretarako, testuaren parte bat baizik kontuan ez hartzea erabaki dugu: Humboldtten bertako behaketei buruzkoa.

Materia honen gehiengoa Euskal Museoko bildumetatik heldu da; erakusketa honek, zeharka, museoko bildumen aberastasun eta aniztasun handiak agerian ematen ditu. Karia honetara, altxor batzuk erreserbetatik atera dira: Humboldték kontsultatu kasik liburu guzien jatorrizko argitalpenak, XVIII. mendeko eskuizkribuak edota Alexandre Millin-Duperreux-en XIX. mende hastapeneko marrazki sorta handia. Sorta horretan, besteren artean, tintazko krokis ttipi bat bada, itxuraz ezdeusa, baina gure xederako zinez baliosa dena: Wilhelm von Humboldtten eta Caroline emaztearen irudia; bizkarrez ageri dira, Gavarnie-n ateraldi bat egiten zutela, 1799an, doi-doi Euskal Herria lehen aldiz ezagutu aitzin. Panorama hori osatzeko, beste dokumentu batzuk mailegatu dira; besteak beste, Lapurtarren Biltzarraren XVIII. mendeko deliberamenduen erregistro ikonikoak, Viollet-le-Duc-en marrazkiak eta Alexandre Millin-Duperreux-ren margolanak.

Retour sur la langue basque

Euskaraz

On ne saurait évoquer Humboldt sans accorder une place à l'*euskara*, définie comme le principal trait de caractère de la « spécificité nationale » des Basques, et s'interroger sur son devenir, qui le préoccupe déjà. Dans son analyse, puisque la langue basque est un « vestige », la dernière manifestation d'un monde primitif et lointain, elle est inexorablement condamnée dans le monde nouveau en gestation : « sa disparition est d'autant plus sûrement préparée par les influences lentes qui, de nos jours, alors que presque tous les points de l'Europe sont en contact réciproque, contraignent tous les groupements de plus petite taille à abandonner leur caractère exclusif. Ces influences repoussent progressivement leur langue, et avec cette dernière se perd nécessairement aussi simultanément leur spécificité nationale. » Si le destin de nombreuses langues européennes s'est avéré conforme à cette prédiction, le basque est toujours parlé et transmis sur le territoire des sept provinces, plus de deux cent ans après le passage d'Humboldt. Mais dans quelle situation se trouve-t-il aujourd'hui ? Malgré d'indéniables avancées, la place de l'*euskara* dans les usages quotidiens reste précaire et l'évolution rapide du paysage démographique en Pays Basque laisse son avenir en suspens.

Ezin Humboldt jorratu euskara aipatu gabe, harentzat euskaldunen "*berezitasun nazionala*"-ren ezaugarri nagusia baitzen. Euskararen geroaz ere gogoetatzea beharrezkoa da, hura ere arranguratzeko baitzuen. Humboldtten analisisian, euskara "*aztarna*" bat da, mundu primitibo eta urruneko baten azken lekukoa; beraz, aldatzen ari den mundu berrian, desagertzera kondenatua da bortxaz: "*Are prestatuagoa da haren desagerpena, eragin motelez mugitzen den mundu honetan. Izan ere, egun, Europako kasik leku guziak elkarrekiko harremanetan dira, eta talde ttipi guziak beren nortasun eskusiboa uztera behartuak dira. Eragin horiek, pixkanaka, hizkuntzak gibelarazten dituzte; eta, hizkuntzarekin batera, berezitasun nazionala ere aldi berean galtzen da, bortxaz.*" Europako hizkuntza anitzen ibilbidea iragarpen horren arabera izan da; euskara, aldiz, zazpi euskal probintzietan oraino baliatzen eta transmititzen da, Humboldt pasatu eta berrehun urte baino gehiagora. Baina zein da euskararen gaurko egoera? Aitzinamendu ukaezinak izanik ere, eguneroko erabilpenean euskararen lekua zalantzazkoa da oraino, eta Euskal Herriko paisaia demografikoa laster aldatzen denez, ezin erran etorkizuna segura duenik.

Visuels Irudiak

Cliquer **ici** pour télécharger


Hemen klikatu deskargatzeko

Mairie de Toulouse - Bibliothèque municipale, Robert Batty, Valley of the Bidassoa 3 Miles above Irun, 1823, A-BATTY (2-12).	
Alexandre-Louis-Robert Duperreux (1764-1843) <i>Vue de Saint-Jean-de-Luz et Ciboure depuis les hauteurs d'Urdazuri.</i> <i>Donibane Lohizuneko eta Ziburuko ikuspegia Urdazuriko gainetatik.</i> Huile sur toile – Oihal gaineko olio. Vers 1825 / 1825 aldean. © Château Fort – Musée Pyrénéen de Lourdes	
Alexandre-Louis-Robert Duperreux (1764-1843) <i>Homme à chapeau haut-de-forme et redingote</i> (Wilhelm von Humboldt). <i>Molde luzeko kapelu eta xeniladun gizona</i> (Wilhelm von Humboldt). © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - <i>Baionako Euskal Museoa</i>	
Alexandre-Louis-Robert Duperreux (1764-1843) <i>M. et Mme Humboldt à Cauterets. Humboldt Jaun Andereak Cauteretsen.</i> © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - <i>Baionako Euskal Museoa</i>	

Manuel de Larramendi (1690-1766)


Diccionario trilingue castellano, bascuence y latin. 1745

© Musée Basque et de l'histoire de Bayonne -
Baionako Euskal Museoa


**Louis Ramond de Carbonnières (1755-1827)**

Voyage au Mont Perdu. 1801

© Musée Basque et de l'histoire de Bayonne -
Baionako Euskal Museo

**Scénographie**

A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – *Baionako Euskal Museoa*



Autour de l'exposition Erakusketaren inguruan

Programme exhaustif : www.musee-basque.com

Inscription pour les visites guidées, visites-conférences, conférences, visites en famille, visites et ateliers jeune public : + 33 (0)5 59 59 08 98

VISITES GUIDÉES - BISITA GIDATUAK

Juillet / Uztaila: 21, 24, 28, 31 15:00

Août / Agorri: 4, 7, 11, 14, 18, 21, 23, 25, 28 15:00

Septembre / Iraila: 8, 12, 15, 22

Octobre / Urria: 20, 23, 27, 30

Novembre / Azaroa: 14, 28

Décembre / Abendua: 5, 22, 29

Janvier / Urtarrila: 3 (avec Jacques Battesti, commissaire / arduraduna)

JEUDIS AU MUSÉE- OSTEGUNAK MUSEOAN

10 septembre / Irailaren 10a 18:00

Humboldt, le Pays Basque avant le Pays Basque. Humboldt, Euskal Herria, Euskal Herria baino lehen.

Conférence d'Iñaki Zabaleta-ren hitzaldia. SAMB

22 octobre, 26 novembre et 7 janvier - Urriaren 22a eta azaroaren 26a 18:00

Visites du commissaire d'exposition Jacques Battesti / Jacques Battesti erakusketaren arduradunaren bisita gidatuak.



A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa



Le dépliant en ligne
Esku orria linean

musee-basque.com

Contact presse – prentsa harremanak / Anne-Marie Galé : 06 20 51 86 35

Le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne Baionako Euskal Museoa

« *Hemen sartzen dena, bere etxean da... Celui qui entre ici est chez lui...* »

Bienvenue dans ce *Musée de France* qui rassemble la plus riche collection consacrée à la vie en société en Pays Basque Nord (*Iparalde*). La Maison Dagourette, rare et belle demeure portuaire du XVII^e siècle, aujourd'hui classée *Monument historique*, accueille le Musée Basque depuis son ouverture en 1924. À la faveur d'une grande rénovation en 2001, des espaces contemporains vastes et lumineux ont été adossés à l'ancienne bâtisse, offrant confort et fluidité au parcours de visite.

Autour d'un grand puits de lumière (*Argialde*), une vingtaine de salles thématiques s'articulent sur trois niveaux dévoilant les multiples aspects de la culture basque : origines et langue, rites funéraires, vie rurale et architecture, vie domestique et artisanat,

activités maritimes et fluviales, fêtes et jeux, histoire régionale. La section consacrée à l'histoire de Bayonne, évoque les sociétés basques et gasconnes à la confluence des rivières Nive et Adour et l'ouverture sur l'océan. Chaque année, une exposition temporaire met en lumière une thématique, un artiste, un aspect de l'art et de la société au Pays Basque.

À deux pas du musée, sur les hauteurs de la place Paul-Bert, l'aile nord de Château-Neuf, (forteresse classée du XV^e siècle), abrite la Bibliothèque - Centre de documentation du musée, l'une des structures les plus riches dans le domaine basque avec ses 30 000 documents anciens et contemporains, manuscrits, livres, journaux, revues...


Ongi etorri Ipar Euskal Herriko gizarte-bizitzari buruzko bilduma aberatsena biltzen duen Frantziako Museora. Dagourette etxeak, XVII. mendeko portu-etxe bitxi eta ederra, gaur egun monumentu historiko gisa sailkatua, Euskal Museoa errezebitzen du 1924an ireki zenetik. 2001ean asko berritu zenez, gaur egungo espazio zabal eta argitsuak eraikin zaharrean jarri dira, bisita-ibilbide berriari erosotasuna eta arintasuna eskainiz.

Argi-putzu handi baten inguruan (Argialde), gaikako hogeitabat gela daude hiru mailatan antolatuta, euskal kulturaren alderdi guztiak azaltzeko: jatorria eta hizkuntza, hileta-errituak, landa-bizitza eta arkitektura, etxeko bizitza eta artisautza, itsasoko eta ibaietako jarduerak, bestak eta jokoak, eskualdeko historia.

Baionako historiari buruzko atalak euskal gizarteak eta gaskoninak gogorarazten ditu, Errobi eta Aturri ibaien elkargunean eta ozeanorako irekieran.

Urtero, aldi baterako erakusketa batek gai bat, artista bat, euskal artearen eta gizartearen alderdi bat nabarmentzen ditu.

Museotik bi urratsera, Paul-Bert plazaren altueran, Gaztelu Berriaren iparraldeko hegalean (XV. mendeko gotorleku sailkatua), Liburutegia - Museoko dokumentazio-zentroa plantatua da, euskal esparruko egitura aberatsenetako bat, 30.000 dokumentu zahar eta garaikide, eskuizkribu, liburu, egunkari, aldizkari eta abar dituen.

La programmation culturelle Egitarau kulturala**Juillet à décembre 2026 - 2026ko uztailetik abendura****Informations pratiques Argibide praktikoak**

Le musée est ouvert toute l'année.

Fermé les lundis, jeudis matin et les jours fériés,
sauf le 14 juillet et le 15 août. Fermé du 17 au 19 juillet (Fêtes de Bayonne).

Horaires

Mardi, mercredi, vendredi, samedi et dimanche : de 10 h à 18 h. Le jeudi : de 13 h à 20 h.

Tarifs

Plein tarif : 11€ - tarif réduit : 8€

Gratuit pour les moins de 26 ans.

Gratuit le jeudi de 18 h à 20 h.

Gratuit pour tous, le 1er dimanche de chaque mois.

37 quai des Corsaires - Bayonne. Tél : + 33 (0)5 59 59 08 98

Informations et réservations : contact@musee-basque.fr

Urte osoan museoa asteartetik igandera idekia da.

Hetsia astelehenetan, ostegun goizero, pesta egunetan salbu uztailaren 14a eta agorrilaren 15a.

Uztailaren 17a, 18a eta 19a, hetsia izanen da (Baionako Pestak).

Ordutegiak

Asteartea, asteazkena, ostirala, larunbata, igandea: 10:00 - 18:00.

Osteguna: 13:00 - 20:00.

Tarifak

Prezio betea: 11€ - Prezio murriztua: 8€
Urririk 26 urtetik beherako jendearentzat
Urririk 18:00 - 20:00 ostegunak
Urririk hilabete bakoitzeko lehen igandean.

Kortsarioen kaia 37 – Baiona / Tel: + 33 (0)5 59 59 08 98
Argibide praktikoak eta erreserbatzeak



Facebook, Instagram, Bluesky
www.musee-basque.com
